



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

BERDINTASUNA KUDEAKETA AURRERATUAN: TRESNAK ETA ESPERIENTZIAK (IV)



Donostia, 2020ko urriaren 27a

1. Dbus

- **Jarduera sektorea:**

Bidaiarien hiriko garraio publikoa Donostia-San Sebastianen.

- **Batez besteko plantilla 2019ko urtean:**

527 langile, eta horietatik %11,77 emakumeak dira.

- **Erabiltzaileak 2019ko urtean:**

29.583.538

- **Autobus kopurua:**

136



2. Dbus, berdintasunarekiko konpromisoa

2009an I. Berdintasun Plana jarri zen martxan Dbusen.



2009aren bukaeran, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen** aitorpena eskuratu zuen.

2014an II. Berdintasun Plana jarri zen martxan Dbusen.

Dbus **BAI SAREA**ren parte da, 2008an sortu zenetik. Gainera, **soldata arrakalaren** lantaldeko kidea da.



Gaur egun, dbus beste diagnostikoa bat egiten ari da **III. Berdintasun Plana** diseinatzeko.

3. Berdintasun plana

2009an I. Berdintasun Plana jarri zen martxan Dbusen.

Dbusek berdintasunaren alorrean dituen **helburu** nagusiak:

- Emakumeen presentzia areagotzea Dbuseko plantillan.
- Erantzunkidetasuna eta kontziliazioa erraztea.
- Barruan zein kanpoan berdintasunaren aldeko irudia adieraztea.




3. Berdintasun plana

Izandako **lorpen** nagusiak:

Emakumeen presentzia areagotzea **Dbuseko** plantillan: 2014an %7 baino gehiago izatetik (39 emakume) **gaur egun %11,77** izateraino (70 emakume).


EMAKUMEAK DBUS-EN



3. Berdintasun plana

Izandako **lorpen** nagusiak:

Emakumeen presentzia handitzea gidari lanpostuetan.



3. Berdintasun plana

Izandako **lorpen** nagusiak:

Urtetik urtera gero eta gehiago dira Dbuseko langileek baliagarri dituzten **kontziliazio eta erantzunkidetasun** neurriak, eta gehienbat gizonek erabiltzen dituzte neurri horiek:

- Aitatasun baimena, hobetua (16 gizon)
- Edoskitze baimena, metatua (emakume 1 eta 16 gizon).
- Lanaldi murrizketa, metatua (6 emakume eta 40 gizon).
- Zerbitzu aldaketak eta atsedeen eguna.
- Opor aldaketak.

3. Berdintasun plana

Barruan zein kanpoan berdintasunaren aldeko irudia proiektatzeko, ekintza hauek egin ziren:

- Dbuseko **Berdintasunezko komunikazio gidaren** argitalpena.
- **Irudi ez sexistak** dituzten seinaleen erabilera autobus barrualdean.



- **Eskaripeko geldialdiaren** ezarpena gaueko “gautxori” linea guztietan.



4. “EMAKUMEA ZARA? PRIMERAN!” kanpaina

AZALPENA:

2020ko otsailean, Dbuseko gidarien lan poltsa berria argitaratu zen une berean, Dbusek informazio kanpaina bat abiarazi zuen prozesuan aurkezteko interesa eduki zezaketen emakumeei zuzenduta, prozesura parte hartzera bultzatuta.

“Emakumea zara? Primeran!”, “Inork ez zaitzala frenatu” eta “Zurekin abiatu nahi dugu” leloak erabiliz, asmoa zen sektore maskulinizatu honetan gidari lana gehienbat gizonezkoen lanbidea deneko ideia haustea.



4. “EMAKUMEA ZARA? PRIMERAN!” kanpaina



HELBURUAK:

Kanpainaren asmoa zen emakumeei eta gizonei ere ikusaraztea autobus gidatzeak ez duela batere zerikusirik emakume edo gizon izatearekin eta **autobusak gidatzea gizonen gaitasuna edo trebetasuna delako aurreiritzia haustea.**

Kanpainak **bigarren helburu bat zuen epe ertain-luzera:** oraindik autobusak gidatzeko baimena edo deialdian parte hartzeko beharrezkoak diren beste baldintza batzuk ez zituzten emakumeei planteatzeko gidari postua inoiz pentsatu ez duten lan irteera izan zitekeela beraientzat, eta hurrengo deialdietarako prestatu zitezkeela.

4. “EMAKUMEA ZARA? PRIMERAN!” kanpaina

ARRAKASTAREN GAKOAK:

- Dbuseko **emakume gidariak** ziren kanpainaren protagonistak. Profil desberdineko emakumeak ziren, hainbat emakumeren kezkak ordezkatu ahal zituztelakoan.
- Emakume horiek denek **aktiboki parte hartu zuten** kanpainaren garapenean.



4. “EMAKUMEA ZARA? PRIMERAN!” kanpaina

ARRAKASTAREN GAKOAK:


- Oso estereotipo errepikatua den gaztelaniazko “**Mujer tenías que ser**” esaldiari buelta ematea eta desmuntatzea ere diskriminazioak ezabatzeko beste urrats bat gehiago zela ulertu zen.



4. “EMAKUMEA ZARA? PRIMERAN!” kanpaina

ARRAKASTAREN GAKOAK:


- Kanpaina Donostiako
markesinetan zein
autobus batzuen
errotulazioan, Dbusen
webgunean eta bere sare
sozialetan ikus zitekeen.



4. “EMAKUMEA ZARA? PRIMERAN!” kanpaina

ERAGINA:

- Dbuseko langileek eta erabiltzaileek eta Donostiako hiritarrek ere oso ondo hartu zuten kanpaina, Dbusek bere egunerokoan proiektatzen dituen balioekin bat datorrelako.
- Aurkeztutako emakumeen portzentajea **nabarmen handitu zen:**



5. Beste erakunde batzuetan kopiatu ahal izateko gakoak

Enpresako langileen artean zein gizartean kanpainak eduki duen **harrera onak** nabarmen uzten du beste sektore eta lanbide askotan ere egin daitezkeela horrelako informazio kanpainak.

Estereotipoak desmuntatzen jarraitu behar da, aukera berdintasuna bistaratzeko eta hurrengo belaunaldientzako horizonte berriak irekitzeko.



Mila esker

Nerea Díez Muñoz

**Dbuseko Giza Baliabideen eta
Pertsonen arloko burua
ndiez@dbus.eus**